

Iparraldean dauden euskarazko haurtzandegiak ez dira 5% iristen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 19/09/2023

Eskola publikoetan egoera ez da askoz hobea izan ere bakarrik 6,5% daukate euskarazko eskaintza eta hiru probintzietan 1996-tik euskaldunen proportzioa behera doa.

Konkolotx elkarteak, iparraldeko haurtzaindegia eta haurtzain-etxe euskaldunen ordekaritza salatu zuen beste egunean Frantziako estatuak ez duela inongo diru laguntzarik emango haurtzaindegia euskaldunei, nahiz eta hauek eskatu izana guztiak ukatu egin zaie. Horren aurrean euskaldunen elkartasuna eskatu dute eta kontribuitzeko esteka bat ahalbidetu dute [Konkolotx haurtzaindegia, haurtzain-etxe euskaldunak \(helloasso.com\)](https://konkolotx.eus). Euskarazko haurtzaindegien bereziki larria da, izan ere, hauek ez dira 5% iristen.

Hala ere, derrigorrezko ikaskeetan egoera ez da askoz hobea izan ere eskola publikoetan ezin zen euskaraz heman ikasgai guztiak 2021 arte eta gaur egun euskarazko irakasleen eskaintza ikasteko eskariaren baino azpitik dago oraindik, izan ere euskarazko eskolak bakarrik 6,5% portzentaia dute iparraldeko eskola publikoen artean. Ikastoletan nahiz eta zentro pribatuak izan ez da guztiz bermatzen euskaraz ikasteko eskubidea, izan ere zenbait azterketa frantsesak egitera behartuta daude hauek ere, adibidez unibertsitatara sartzeko frogak besteen artean.

Guzti honi gehitu behar zaio estatu frantsesak ez duela euskera hizkuntza ofizial bat bezala aitortzen, bere erabilera baztertuz eremu publikotik eta frantsesa inposatuz, herrialdearen errealitate soziolinguistikoa alde batera utziz, non Zuberoan edo Nafarra Beheran euskara hitzegin edo ulertzen duten portzentaia 61,3% da. Euskararen kontrako politikak honek atzerapausoak ekarri du azken hamarkada hauetan izan ere 1996-an euskaldunen portzentaia 26,4% zen eta gaur egun 20,1% da.

<https://eh.lahaine.org/iparraldean-dauden-euskarazko-haurtzandegiak-ez>